

Edertasunak kontuz gorderik behar du

Miren Azkarate
Badiola

Sare sozialen garaian bizi garen honetan, aitortu behar dut ez ditudala batere maite baina lanagatik batzuen jarraitzaile naizela, kasu Facebookekoa. Denetik ikusten dut egunero bertan; barrea eragiten didatenak, negarra, haserrea, sorpresa... era guztietako sentimenduak. Eta badira ere oraindik, nahiz eta egunak eta asteak pasatu, zer zakutan sartu ez dakidan albisteak ere. Saiatuko naiz ikusitakoa azaltzen eta ea hitzak jarrita zer sentitzen dudan plazaratu dezakedan.

Argazki bat zen, oso-oso ezaguna den umeen aulkien (edo karroen) marka ba-

ten iragarkia. Bertan, emakume bat azaltzen zen banku batean eserita, albora begira, eta bere parean haurraren aulkia. Bularra ematen ari omen zen (omen diot, ez baitziren ez haurra ez bularra ikusten), hori jartzen zuen idatzita, behintzat. Baina, eta hau da saltzen zutena, aulkiko heldulekutik amaren lepo azpira tela bat ateratzen zen aurrealdea eta aldeak tapatzen zizkiona. Kanpin denden oihal berdinekoa eta kolore ezberdinetan eskuragarri! Euria egiten duenerako? Pentsatu nuen, edo, bularrak ez hozteko haizea dabilenean? Baina ez, bularrak agerian ez izateko zen!

Nik oraindik ezin dut sinistu nola den posible XXI. mendeko herrialde “garatu” (=aurreratu?) hauetan emakume bat edoskitzen aritzea gaizki ikusitako edo ezkutatu beharreko ekintza bat izatea. Benetan?

Eta nor izan da oihal hau asmatu duen “iluminatua”? Seguru, bularrak beste edozein lekutan (hondartzan, zineman, pornografian...) gustu handiz ikusten dituen gizon bat. Eta okerre-na da merkaturatu badute erosiko eta erabiliko duten emakumeak egongo direlako izango dela...

Dezepzioa eta auzo-lotsa! •

Erdigunean

Antton Izagirre

Azkenaldian euskaltzaleon ikuspegiak eta usteak hari beraren bi aldeetan banandu xamar ageri zaizkigu. Alde batean, euskararekiko atxikipena, hizkuntzaren hedapena eta erabilera atzera bidean, egonkortuta edo aurrera egin ezinean dauden ustea, eta, beste aldean, azken urteotan egindakoak fruituak eman dituela defendatzen dutenena.

Egia da datu objektiboek, neurketa eta emaitzek baterako zein besterako aukerak eskaintzen dizkigutela begirtzeko erabiltzen ditugun betaurrekoen arabera. Hala ere, interesa sor dezakee-

na ez da atzera begira ikuska dezakeguna, aurrera begira egiten ari garena eta egin asmo duguna baizik.

Berriki Altsasun egindako Nafarroa Oinez arrakastatsua eta euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora hedatzearen alde egindako indar metaketa eta bildutako adostasuna aintzat hartuta, etorkizunari begira aritzeko hauspoa jaso dugu euskaltzaleok; ez hori bakarrik, politikariek euskara jardun politikoan erdigunean jartzeko mezu argia jaso dute.

Ondorengo egunotan Euskaraldiak hartuko du protagonismoa Euskal He-

rrian. Aukera ezin hobea, baikorren edo ezkorren arteko alderaketak alde batera utzita, aurrera begira elkarrekitik uztardurak bilatu eta guztiok batera aritzeko.

Aurtengoan, abenduaren 3an, Euskararen Eguna sinbolikoa izatetik harago, 11 eguneko ariketa sozial erraldoian murgilduta izango gara Euskal Herri osoan: euskara erdigunean jarriko dugu milaka ahobizi eta belarriprest euskaltzalek. Paparrean euskara eramate-tik aho eta belarrietara eramateko baimena emango diogu elkarri, atzera begiratu gabe. •